

Aurrekontuen aurrekari, 2025eko ordenantza fiskalen proposamena aurkeztu du udal gobernua

- Urteko KPIari erantzunez, %2,6ko eguneratze orokorra proposatu du udal gobernua.
- Bidezkoagoa izango den fiskalitate baten eta prezio publikoen progresibitatearen bidea lantzeko, lan-taldea jarri du martxan udal gobernua

Andoainen, 24-10-15.- Ez ditugu garai errazak bizi. Testuinguru globalak, gerra giro orokortuak eta prezioen etengabeko gorakadak, ataka estuan jarri gaitu gutako askori, baita Udalari ere.

Zerbitzu publikoek, zentzu horretan, premiazko garrantzia dute. Gure betebeharra da herritarrari eskaintzen zaizkion zerbitzuen kalitatea oparoena izatea, justuena izatea eta kalitatezkoena izatea. Gure konpromiso irmoena horretan datza.

Zentzu horretan, 2025eko aurrekontuaren osaketan ari garen honetan, udal gobernua datorren urterako ordenantza fiskalen proposamena osatu eta aurkeztu du. Proposamena oposizioko taldeen eskuetan dago jada, eta datorren osteguneko, urriaren 17ko udalbatzan eztabaidatu eta bozkatuko da.

Hauek dira proposamenaren aldaketa nagusiak:

-%2'6ko aktualizazioa orokortua, urteko KPIari erantzunez.

***Salbuespena: Zaborrak eta hiri hondakinak biltzeko zerbitzua.**

Europatik datorren zuzentarau bat aplikatu behar da hurrengo urteetan (Ekonomia Zirkularrerako Hondakin eta Lurzoru Kutsatuei buruzko Legea): honen arabera, Udal-hondakinen bilketak udalen diru-kutxetarako 'zero kostua' izan behar duela dioen printzipioa aplikatu behar da.

Gaur egun 485.500 euroko defizita suposatzen du hondakinen bilketak Udalarentzat; 1.449.000 euroko kostua du, eta 963.500 euro jasotzen dira tasaren bitartez. Beraz, %50 igoera eman beharko da datozen urteetan zerbitzuaren sarrera eta kostua parekatzeko.

Familiei erraztasunak emate aldera, igoera bi urtetan modu progresiboan ematea proposatu da: %25a 2025ean, eta gainerako %25^a 2026an.

Hala, gaur egun familia arrunt bati 26,05 euro suposatzen badio hiru hileko fakturak, 32,56 euro ordaindu beharko ditu datorren urtean.

Hala ere, gogoratu nahi dugu igoera hau malgutzeko hobariak eskuratzeko aukera duela herritarrak; bosgarren edukiontzia erabilera egiteagatik, esaterako, %20ko hobaria eskuratzeko aukera dago.

-Jarduera Fisiko eta Kiroletako udal zerbitzua

Udalari dagokion prezio publikoetan %2,6ko igoera proposatu da.

Buruntzaldea mailan ezartzen diren eta adosten diren prezio publikoetan (bazkidetzak...): %4,5ko igoera

-Bastero Kulturgunea

Azterketa sakona egin da eskaintzen diren zerbitzuen inguruan, eta herriko erabiltzaileen eta kanpoko erabiltzaileen artean zegoen aldea nabarmena zela ondorioztatu da. Horregatik, hainbat prezio egokitu eta eguneratu dira.

-Hobariak

Ohiko hobariak aplikatu dira 2025ean zehar ere. Edonola, Andoaingo norbanako eta familiek bizi duten errealitateari erreparatzea da udal gobernuaren nahia, besteak beste, progresibitatearen bidean, diru-sarreraren araberako tasak ezarriz eta hobari sistema ekitatibo eta justu bat aurrera eramanez. Horregatik, udal gobernuak aurreratu nahi du lan-talde bat jarriko duela martxan bide horretan proposamena landu dezan.

***Berritasuna: Gurasobakarren auzia**

Hobarien aplikaziorako garaian, familia gurasobakarraren definizioan, jasota dagoenaz gain, egoera hauek guztiak egiaztatzea:

- Banaketa edo dibortzio sententzia egotea
- Zaintza eta kustodia eskusiboa edukitzea
- Beste gurasoen aldetik manutentzioa ez jasotzearen salaketa egotea

2025eko aurrekontu proposamena

Tasa eta prezio publikoen proposamena eztabaidatu eta bozkatzeko plenoa urriaren 17an izango da, ostegunean, 19:00etan.

Tasa eta prezio publikoen onarpenak mugari garrantzitsua suposatzen dute Udal baten garapenerako. Ezinbesteko diru-iturri dira herriko funtzionamendua aurrera eramateko. Eta ezinbesteko tresna da horretarako udal aurrekontua ere. Udal gobernu lanean ari da 2025eko aurrekontuan dagoeneko; aurreratu nahi du gizarte babesa eta zaintza indartzea, herria berritzeko proiektuak eta zerbitzu publikoen indartzea izango direla proposamenaren muinak, besteen artean.